

2019

URTEKO TXOSTENA



Izarbidean

ein jerie distirari!

Memoria honetan Izarbidean elkarteak, batez ere boluntarioei esker, 2019. urtean zehar garatu dituen ekintzen narrazio kronologikoa aurkeztuko dugu.

2019ko ekintzetan hainbat dira aipatzekoak, baina aurtengoan ospatu berri dugun Merendola solidarioa da nabarmendu nahi duguna. Bera Kruz ikastolak antolatutako ekimena da, DBHko

3. mailako ikasleek antolatzen dute eta gabon aurrean ospatu genuen. Ekintza Ikastolan bertan izan zen, ikasle, irakasle, guraso, begirale eta erabiltzaileak batu ginen. Ilusioz betetako arratsaldea izan zen, janaria, opariak, musika eta dantza, ez zen ezer falta izan. Guretzat oso hunkigarria izan zen eta eskerrak ematea dagokigu parte hartu zuten guztiei, paregabeak baitira.



Urte osoan Sukalde tailerra egiten jarraitu dugu eta hainbat errezeta berri egin dira. Polikiroldegiko gimnasio eta igerilekura joaten direnean ere gustura aritzen dira. Gure lokalean, *Topagunean*, hainbat arratsalde pasatu ditugu, eskulanak egin, futbolinean jolastu edota beste hainbat ekintza eta jolasetan.

Zaldietara, ekinoterapia saioetara nahi baino gutxiagotan joan gara. Zapa-tuero joaten garen arren, talde bitan banatzen gara eta, horregatik, aste-roko irteera izan ordez erabiltzaile bakoitzak bi astean behin egiten duen aktibitatea da.

Asteburu osoko irteera batzuk egin dira, eta baita egun pasako irteerak ere.

Ekintza edo irteeraren edota aktibitatearen baten sortu daitezkeen anekdota eta bizipen asko kontatu ditzakegun arren, erabiltzaileengan sortzen den ilusio ikaragarria da azpimarratu nahi duguna.

Besterik gabe, murgildu zaitez gure memorian eta jakizu, existitzen diren muga bakarrak nork bere buruari jartzen dizkionak direla.

Izarbidean, diru irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Elkarte hau aniztazun funtzionala duten erabiltzaileen gurasoek eta etxeok sortu zuten. Hain zuzen ere, Markina-Xemein eta Etxebarriko guraso batzuek. Gaur egun, Izarbidean taldea familiartekok, boluntarioek eta erabiltzaileek osatzen dute.

Gurasoen helburu nagusia, haien seme-alaben gizarteratzearen aldeko plana egitea eta gizarte osoari, baina batez ere herri horietako herritarrei, horretan partaide eta laguntzaile izateko eskatzea da.

Elkartea sortu ondoren, eta euren seme-alaben premien azterketak egin ostean, honako hau ondorioztatu zen: momentu horretan bi lehentasun zeudela; alde batetik, eguneko zentroa sortzea eta, beste alde batetik, aisialdirako talde bat eratzea.

Izarbideanek, Markina-Xemein herrian, eguneko zentro bat sortzea bultzatu zuen zenbait instituziotan, esaterako, Foru Aldundiaren Ongizate Batzordearen aurrean.

2007ko urtarrilean jarri zen martxan Aisialdi-proiektua, Markina-Xemeingo Udalak utzitako Topagune deitu genion lokal batean. Izenak esaten duen moduan, helburu nagusia ume, gazte eta helduak elkarrekin egoteko gune aproposa izatea da.

Nabarmendu nahiko genuke Izarbidean Onura Publikodun Elkartearen erroldan onartua dagoela 2002ko maiatzaren 7tik.



Markina-Xemein eta inguruan ez dago pertsona horien premiak betetzeko aisialdi-ekintzen eskaintzarik. Hori dela eta, lagun gehiagorekin elkartu eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten aisialdi eskaintza da ematen zaiena, beti ere, gizarteratze helburuari ahaztu gabe. Hori guztia boluntario eta laguntzaile kontratuekin batera garatzen da.

Bai Topagunean, bai kalean hainbat ekintza egiten dituzte: paseoan ibili, margotu, jolastu...

Dena den, kontzienteak gara hori ez dela egoera ideala; izan ere, beren aniztasun funtzionala dela eta, lagunekin eta beren monitoreekin baino ez iza-

tea ez da gure helburua. Baina, herriko gainerako ekintza eta ospakizunetan, zoritxarrez, gure erabiltzaile ia gehienak baztertuta gelditzen dira.

Azken urteotan, pauso handiak eta sendoak eman dira Inklusioa gauzatzeko bidean, baina bidea luzea eta neketsua da eta argi asko ikusten dugu hori gurasoek eta familiakideek ez ezik baita monitore eta laguntzaileek ere. Dena den, gure helburua betetze aldera, saiatuko gara erabiltzaileek ekintza arruntetan eta "normalizatueta" parte har dezaten, inklusioaren bidean aurrerapausoak emanez.



Proiektu hau 17 erabiltzailerekin hasi zen, eta hilabete batzuetara 19ra handitu zen. Gaur egun 20 dira. Ia gehienak Markina-Xemeingoak dira, baina badaude inguruko beste herri batzuetakoak ere (Etxebarria eta Mutriku).

Adinari dagokionez, proiektua adin guztietara dago zabalik. Gure erabiltzaileak, une honetan 17 eta 63 urte bitartean daude. Horregaitik, 2 taldetan banatuta daude, adinaren arabera:

Garra-garraka taldea (17-24 urte bitartekoak)


Algaraka taldea (25-63 urte bitartekoak)

Erabiltzaileek diagnostiko desberdinak dituzte. Adibidez: Autismoa, West Sindromea, Garun paralisia, Mikrozealia + Hemiplejia...

Erabiltzaileek Izarbidean elkartera oso gustura etortzen dira, haien tzat aisialdia oso aberasgarria eta gustagarria da eta elkartean egunerokotasunean egiten ez dituzten hainbat ekintza egiten dituzte eta "eurena" sentitzen duten leku bihurtu dute Topagunea.

Taldeak	Garra-garraka	Algaraka	Guztira
Neskak	1	9	10
Mutilak	3	7	10





- Indarrean dagoen legediaren arabeko aniztasun funtzional psikikoa onartuta izatea.
- Elkartean errolatua egotea.
- Elkartean dagoen bitartean zunda, injehtagarri eta abarren beharrik ez edukitzea.
- Norbere burua eta beste pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketen jokaerarik ez izatea.
- Erabiltzailearen premiek monitore eta erabiltzaileen ratio-ra egokituta egon beharko dute.
- Taldearen funtzionamendura edota jarduerara egokitzea.



Izarbidean elkartearen Topagunea eta aisialdi-proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Lehenik eta behin, Izarbidean elkarreak ez duelako horrenbeste jende kontratatzeko baliabide ekonomikorik, eta bigarren, baina ez horregatik garrantzia gutxiago duelako, BOLUNTARIOek ematen diotelako izaera eta hauspoa gure elkarteari.

Horien guztien arduraduna ere boluntarioen artetik hautatutako bat da. Arduradun hori kontratupean egoten da.

Boluntarioak Izarbideanera oso pozik eta gogotsu etortzen direla esaten dute, eta ikusi ere, halaxe ikusten da. Hona hemen haiek esandako esaldi batzuk: *“persona bakoitzak bere lekua duelako eta bizitza bat dugunez, aprobeixatu egin behar dela erakusten digutelako, talde oso aberasgarria delako; horregatik guztiagatik gustu handia da bertako partaide izatea”, “pozik bizitzen eta alaitasunez gozaten erakusten digutelako une askotan, eta talde-giroa ezin hobea delako”, “oso persona maitakorrek die, zuk emotezun gitxiaz asko jasoten dozulako eurengandik”, “Irakasle paregabeak dira, irribarrik galdu gabe bizitzan aurrera egiten erakusten digutelako”.*

Boluntarioak lortzeko bidea

Prentsa: Zenbait egunkarirekin harremanetan izan gara: HITZA, DEIA, CORREO. Hirurei eskatu genien titular hau erabiltzeko: “IZARBIDEAN Elkarreak boluntarioak behar ditu”.

Kartelak: Markina-Xemein, Ondarroa eta Etxebarriko kaleetan eta zenbait komertziotan kartelak jarri ditugu.

Ahoz ahoko transmisioa; hau da, boluntarioek eurek, taldeetan, institutoetan eta abar egiten dituzten komentarioetatik lortzen dugun oihartzunik handiena.

Ikastetxeetan: Aukera izaten dugun bakoitzean ikastetxeetara jotzen dugu, ikasleekin solasaldi bat izan eta jolas batzuen bidez gure elkarrea ondo ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen saiatzen gara. Horrez gain, eguneroko errealitatearen beste aurpegi bat erakutsi nahi izaten diegu.

Sare sozialak: Instagram eta Facebook bidez ere geure burua ezagutzera ematen ari gara, egindako hainbat ekintzaren berri eman eta jendea elkartera erakartzeko helburarekin.

Boluntario izateko betebeharrak

- 18 urte beteta izatea eta horrelako lan batean parte hartzeko gogoia izatea. 16 urtetik aurrera era ari daitezke boluntario lanetan, baina beti ere gurasoen baimenarekin.
- IIZARBIDEAN elkarrearekin izango dituen eskubideak eta betebeharrak azaltzen dituen dokumentu bat sinatzea.

Boluntarioei harrera

Boluntario batek izena ematen duenean, lanean hasi aurretik, haiekin biltzen da koordinatzailea. Bilera horretan zera azaltzen zaio:

- Haien eskaintzara moldatzen garela eta lana zein talderekin eta zein ordutegitan egingo duen adosten dugu.
- Lokala erakusten zaio.
- Eskubideak eta betebeharrak fitxa betetzen dute (boluntarioen legea).
- Proiektuaren nondik norakoa azaltzen zaie (txostentxo bat ematen zaie).
- Erabiltzaile bakoitzaren informazio ematen zaie, baina beti ere isilpean gordetzeko informazioa dela argi adierazita.

Boluntarioen zerrenda

IZENA	HERRIALDEA
Ainara Benedicto	Markina-Xemein
Amaia Markuerkiaga	Ondarroa
Amaia Zuberogoitia	Markina-Xemein
Axier Vivanco	Markina-Xemein
Bihotz Ibarzabal	Markina-Xemein
Nahia Eguia	Ondarroa
Eider Elkorobarrutia	Markina-Xemein
Garazi Espila	Markina-Xemein
Kattalin Mendibe	Markina-Xemein
Maia Aspiazu	Markina-Xemein
Maialen Basterretxea	Ondarroa
Maitane Gabiola	Markina-Xemein
Miren Zuberogoitia	Markina-Xemein
Nagore Unanue	Markina-Xemein
Olatz Rueda	Markina-Xemein

Formazioa

Boluntarioei lehenengo bileran Aniztazun funtzionalari buruzko dokumentu bat ematen zaie. Bertan dago azalduta nola erlazionatu behar diren erabiltzaileekin. Beste alde batetik, formazio-eskubidea dutela esaten zaie.

Formazio-ikastaro horiek helburu argi bat dute: euren lana ahalik eta modu eraginkorrean garatu dezaten laguntza eta aholkuak eskaintzea. Horretarako, Apnabi, Gorabide, Aspace... elkarteak gonbidatu izan ditugu, informazioa eman diezaguten.



IZENA

HERRIALDEA

Nerea Meabebasterretxea

Ondarroa

Teresa Pagaegi

Markina-Xemein

Maria Burgoa

Markina-Xemein

Andrea Pagaegi

Markina-Xemein



Arestian azaldu dugun moduan, elkartearen helburu nagusia erabiltzaileei haien denbora librean, aisialdian, zenbait ekintzatan parte hartzeko aukera ematea da. Horretarako, hainbat esparrutan mugitzen gara. **Topagunean** egiten dira ekintza gehienak, baina herriko bestelako zerbitzu eta eskaintzak ere erabiltzen ditugu eta ekintza kulturaletan parte hartzen dugu. Adibidez: polikiroldegia, zeramika-tailerra, etab.

Erabiltzaileen integrazioaren inguruan esan genezake talde bakoitzarekin lana egiterako orduan, hainbat alde edo aspektu hartu behar direla kontuan, taldeek ezaugarri propioak dituztelako, horietako bakoitza osatzen duten erabiltzaileen ezaugarri pertsonalen arabera. Hori dela eta, antolatutako ekintzak oso desberdinak dira talde batetik bestera. Adibidez, **Algaraka** taldea da autonomia handiena duena. **Garra-garraka** taldeak arazo gehiago eta anitzagoak ditu, eurak baitira ezintasun handienak dituztenak.



Gazteak: Garra-garraka taldea

- Ekinoterapia | 6:00etatik-19:00etara (bi larunbatetik behin)
- Igandeetan Topagunea | 6:00etatik-19:00etara.

Nagusiak: Algaraka taldea

- Astelehena | 8:00etatik-20:00etara Topagunea
- Asteartea | 8:00etatik-20:00etara Zeramika tailerra
- Asteazkena | 8:00etatik-20:00etara sukaldaritza Topagunean
- Ostegunetan | 11:00etatik-13:00etara paseoa herrian zehar
- Ostiraletan | 17:00etatik-19:00etara Topagunea
- Ostiraletan beste ekintza batzuk ere egiten dira, txandaka: igerilekua edo gimnasioa | 8:00etatik-20:00etara. 2.taldetan banatzen gara; hilean ostiral bitan batzuk igerilekura eta beste bi ostiraletan gimnasiora.
- Larunbatetan Ekinoterapia | 6:00etatik-19:00etara. Taldea zatitu egiten da: Garra-garrakoekin elkarbanatzen dute ekintza, talde horretan erabiltzaile gutxiago dagoelako.



IZARBIDEAN elkarteak abian jarritako aisialdirako proiektu hau jada nahikoa sendotuta dago gizartearen onarpenari dagokionez. Hala ere, boluntarioak egon badauden arren, ondo zaindu beharreko kontua dela deritzogu, haiek baitira Izarbideanen euskarri nagusia.

2018tik 2019 urtera baja batzuk izan ditugu eta aurrera jarraitu ahal izan dugun arren, begirale edo boluntario berrien premia dugu. Gauzak horrela, aurten ere Markina-Xemeingo Lea Artibai ikastetxera joango gara hitzaldi bat ematera, ea gazteak animatu eta gure elkartearen parte izatera animatzen diren. Aurten Ondarruko Institututik ere gurekin harremanetan jarri dira eta bertako Lanbide Heziketako Haur Hezkuntza eta Erdi mailako Erizaintzako ikasleengana hurreratuko gara udaberrian.

Izarbideanek praktikak burutzeko aukera ematen du; atek zabalik ditugu unibertsitaterako kredituak lortzeko eta monitoretza titulua atera behar dutenentzat.

Erabiltzaileak direla eta, lehenago ere aipatu den arren, garrantzitsua da nabarmentzea orain dela 3 urte hartutako erabakia: hiru taldetan banatuta zeuden, baina gazte eta nagusien arteko adin-tartea mantentzen den arren, gazteak ere nagusitu egin dira eta ekintzak elkarbanatzen dituzte ehuneko ehunean.

Talde bakoitzarekin burututako integrazio-lana erabiltzaile bakoitzaren desgaitasunaren araberakoa da horietako bakoitzak bere ezaugarriak dituelako eta erabat baldintzatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez.

Erabiltzaileen integrazioa hobetzeko, ekintzak hainbat leku eta esparrutan egin dira, lehenago aipatu dugun lez.

Asteburuko irteerak ere egin dira, esaterako: Lekeitiora eta Zarautzera.



Nagusien taldea: **Algaraka**

Topagunean:

- **Batzarrak:** eguneroko programazioa landu, hurrengo egunetakoak prestatu, proposamen berriak jaso...
- **Eskulanen tailerrak:** belarritakoak, eskumuturretakoak, apaingarriak, kobrea erabiliz arbolatxoak, egurrezko kaxak... Horretatik guztietatik aurtengo Urriko azokan arrakasta handiena izan dutenak apaingarriak eta kobrezko arbolatxoak izan dira.
- **Mahai-jokoak:** Nor da nor? puzzleak, domino, margo-lanak...

Urtero bezala Markina-Xemeingo Urriko Azokan parte hartu dugu. Erabiltzaileek egindako eskulanak saldu dira, eta bide batez herritarren aurrean erakutsi dituzte euren abilezia eta trebeziak.

Atal honetan nabarmendu nahiko genuke hainbat herritarrek Izarbidean elkarteari laguntzeko duen borondate onaren adierazgarria izan dela Azoka, haiek egundako, hainbat eskulan eskaini baitizkigute gure postuan saldu ahal izateko.

- **Sukaldaritza:** Gurinezko galletak, pizza, bizkotxoak.... Hona hemen egin ditugun pare bat erreztea, adibide gisa:



Algaraka taldea

• **LABEKO GAZTA TARTA:**

- *Osagaiak:* Tarta oinarria (hostopila), 200 ml esne-gain, 200 g Philadelphia gazta, kazokada bat pastel-krema eta 100 g azukre.

- *Prestaketa:* Tarta oinarria prestatu (guk egindakoa edo erositakoa izan daiteke). Hasteko hostopila laberako egokia den molde batean ipini, aluminiozo papera gainean jarri eta labean sartu hogei minutuz (aurretiaz 180 gradutan berotuta). Labetik atera eta hozten utzi. Ontzi batean esne-gaina eta azukrea biak batera nahastu, eta, ondo irabiatu ondoren, altxatu; esne-gaina gogortu egingo da. Beste ontzi batean, ondo nahastu Philadelphia gazta eta kazokada pastel-krema, eta, gero, esne-gain harrotua gehitu. Poliki-poliki nahastu. Lortu berri dugun krema hori labetik atera dugun oinarrian zabalduko dugu. Azkenik, hozkailuan hozten utziko dugu eta jateko prest daukagu.

• **BROWNIE:**

- *Osagaiak:* 250 g gurin, 150 g txokolate, 225 g azukre, 4 arrautza eta bainila esentzia.

- *Prestaketa:* Hasteko, txokolatea mikrouhin labean urtuko dugu. Ia urtuta dagoenean gurina gehituko diogu eta nahastu egingo ditugu biak. Ondoren, beste ontzi batean arrautzak eta azukrea nahastuko ditugu, masa edo ore zuria lortu arte. Ore hori aurretik eginiko txokolate eta gurinarekin batuko dugu. Ondoren, guztia molde batean jarri eta aurretiaz 180 gradutan berotu dugun labean sartuko dugu. 30 minutu inguru izango dugu labean eta, azkenik, hozten utziko dugu.

Topagunetik kanpo:

- Herrian zehar paseoak eman edo eta zerbait hartzera joan...
- Ekinoterapia saioak
- Polikiroldegira: Igerilekura eta gimnasiaora.
- Asteburuetako irteerak eta egun osoko irteerak.



Gazteen taldea: **Garra-garraka**

Topagunean:

- Puzzleak egin
- Margotu
- Musika entzun eta musikarekin jolastu
- Ordenagailuan jolastu
- Mahai-jokoak
- Dantzak

Topagunetik kanpo:

- Herritik edo bidegorritik paseoak
- Igerilekura
- Ekinoterapia-saioak
- Asteburuko irteerak
- Egun osoko irteerak



Garra-garraka taldea

Erabiltzaile guztiek

Ekinoterapia saioak

Ekinoterapia-saioak larunbatetan egiten dira, 16:00etatik 19:00etara, YEGUADA OLMEDOan (Mutriku).

Bi taldetan banatuta daude, ekintza hobeto burutu eta aprobetxatzeko asmoz. Lehenago aipatu bezala, larunbat batean Garra-garraka taldekoak joaten dira, baina 5 erabiltzaile baino ez direnez, Algaraka taldeko batzuk ere parte hartzen dute, txandaka, haiekin batera, eta hurrengo asteburuan Algaraka taldea joaten da.

Ekintza hori urte guztian zehar burutzen da, urtarrilean hasi eta abenduan bukatzen dituzte saioak (udaldiko oporren tartea salbu).

Ekinoterapia-saioak oso ondo baloratzen dituzte, bai erabiltzaileek eurek eta baita gurasoek ere.

Gauzak horrela, ekinoterapia-saioek jarrai dezaten dirulaguntzak lortzen ahalegin-duko gara.



Asteburuko irteerak

2019ko irteerak honako hauek izan dira:

- Maiatzak 4-5 **Lekeitiora irteera:** Talde osoa.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Axier, Nahia, Maialen, Amaia eta Nerea.

Bertan buruturiko ekintzak: Urtean behin talde biek bat eginda asteburu bat igarotzen dute elkarrekin, aurten Lekeitiora joatea tokatu da eta, a ze ondo ibili ziren!. Herria ondo ezagutzen dute guztiek eta eguraldia ere lagun izan zuten goiz ederrak igaro zituzten herriko txoko desberdinetan ekintzak burutuz. Hondartzan eta malekioan jolasak egin eta freskagarri bat hartzeko tartea ere izan zuten. Larunbat arratsaldea igerilekuan igaro zuten; gustuko duten ekintza da eta ondo pasatzen dute bertan. Gauean aterpetxean bertan dantza ugari egin zuten, nahi zuten musika jarri eta festa da algara izan zen nagusi. Pena handiz, baina laster bueltatzekotan, domeka arratsaldean etxera bueltatu ziren.

- Ekainak 1-2 **Zarautzera irteera:**Algaraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nahia, Nerea, Maia

Bertan buruturiko ekintzak: Herri zoragarria da eta aukera anitz ematen ditu, eguraldia ere alde izan zuten eta hondartzara joan ahal izan ziren larunbat goizean. Arratsaldean, berriz, herria ezagutzera atera ziren eta bero handia egiten zuten freskagarri bat hartu eta malekioan izozkia jaten egon ziren. Domeka goizean ere bero egiten zuten globo-gerra egitea erabaki zuten, herriko denda baten globo ugari erosi eta belardi batean bi taldetan banatu ondoren; zoragarri ibili ziren, korrika egin eta bustita bukatu zuten. Bazkal ostean etxera bueltatzeko ordua iritsi zen.



Asteburuko irteerak

- Ekainak 15-16 **Lekeitiora irteera:** Garra-garraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nahia, Axier, Nagore, Eider E, Ainhoa eta Nerea

Bertan burututako ekintzak: Berriz ere eguraldia lagun izanda larunbat goiza Lekeitioko faroan egoteko aprobetxatu zuten, paseo ederra dago bertaraino eta leku zoragarria da beraiekin freskagarri batzuk hartu eta argazkiak ateratzeko. Arratsaldean, berriz, ohiturarik ez galtzeko eta gustuko duten ekintza denez, igerilekura abiatu ziren. Igeri eta jolas ugari egiten dituzte uretan. Igande goizean, portura joan eta rabak jateko aukera izan zuten. Bazkalostean maletak prestatu eta buelta Markina-Xemeinera.

- Urriak 5-6 **Bilbora irteera:** Algaraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak: Rosa, Olatz, Mailaen eta Nerea.

Bilbon burututako ekintzak: Oraingoan eguraldia ez zen lagun izan, euria eta hotza egin zuen asteburu horretan, baina ez zen oztopo izan, eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta aurrera. Larunbat goizean Santutxu ezagutzeko aukera izan zuten. Arratsaldean metroa hartu eta Moyua inguruan ibili ondoren Guggenheim ezagutzera abiatu ziren, inguruan argazki ugari atera eta bidean aurkitu zuten lasterketa solidarioa ikusi ondoren freskagarri batzuk hartzeko tartetxoa izan zuten. Igande goizean Boluetako merkadilloan gora eta behera ibili ziren, batzuk opariak erosteko ere aprobetxatu zuten. Bazkalostean jolas-gelan ibili ondoren etxeratzeko ordua heldu zen.



- Urriak 19-20 **Lekeitiora irteera:**
Garra-garraka taldearekin:

Parte hartu zuten boluntarioak: Maialen, Axier, Olatz, Nahia, Amaia eta Nerea

Burututako ekintzak: Goiz ederra egiten zuela aprobetxatu eta portu inguruan ibili ziren paseoan eta argazkiak ateratzen. Bazkalostean igerilekura abiatu ziren eta jolas ugari egin ondoren farora abiatu ziren freskagarri batzuk hartzera. Igandean euria ari zuenez aterpetxean bertan geratu ziren, musika entzun eta dantzan goiz ederra pasatu zuten. Arratsaldean etxeratzeko ordua heldu zen.



Bestelako ekintzak:**- Otsailak 4 Santa Ageda bezpera:**

Aurten hirugarren aldiz Markina-Xemeingo beste elkarte batzuekin bat eginda atera ginen kantuan. XAT, Guraso Elkarte eta Izarbidean atera ginen; zenbait boluntario eta hainbat guraso ere elkartu zitzaizkigun eta hotzari kantuz aurre egin genion. Denon artean asmatu bertsolari pare bat ikasi eta bertsolari birekin ibili ginen herria eta herritarrek alaitzen.

Hotz handia egiten zuen arren, gu urteroko ilusio berberarekin atera ginen kantura eta ahal dugun bitartean berdin egiten jarraituko dugu, ohitura zaharrak bizirik mantentzeko asmotan.

- Otsailak 16 eta Irailak 7, Gozogintza postua:

Urtero bezala Hemen Be Bai merkatari elkarteak antolatzen duen azokan Izarbideanek bere postua jarri zuen., Urtean zehar sukaldaritza tailerren egiten ikasitako gozoak saltzeko. Postua orain dela bost urte jarri genuen lehenengoz, baina herritarren artean erreferentzia bihurtu dela esan genezake, egiten den guztia saltzen baita. Aukera daukagun bitartean ekimenarekin aurrera jarraitzea da gure asmoa.



Bestelako ekintzak:**-Ekainak 23 San Juan suak:**

Urtero bezala, eta ohitura onak galdu gabe, aurten ere Izarbideanek protagonismo puntua izan dute kalejira eta ikuskizunean. Aurten gurasoak izan ziren kalejiran haiekin batera parte hartu zutenak, antortxak eskuan eta irribarre banarekin pozarren atera ziren sua pizteko ohorea zutelako.



Bestelako ekintzak:**- Urriak 12 Urriko Azoka Nagusia**

Erabiltzaile eta gurasoak izan ziren saltzaile lanetan postuan, erabiltzaileek egindako eskulanak, jendeak borondatez emandako liburu eta beste eskulanak atera ziren salmentara. Gauza asko saldu ziren, baina horrez gain, eta garrantzitsuena dudarik gabe hau da: zein ondo pasatzen duten erabiltzaileek eurek egindako gauzak saltzen eta jendeari azalpenak ematen. Aipatzekoa da, baita, urtero bezala gabonetako loteria atera genuela eta loteria ere saldu zela azoka egunean. Egun horri begira izaten dugun helburu nagusia primeran bete zen; hau da, Izarbideaneko erabiltzaileak egun horretan beste edozein herritarren moduan herriko ekintza esanguratsu baten partaide izatea eta sozializatzea.



Bestelako ekintzak:**-Azaroak 30 Fair Sartuday:**

Duela urte batzuk egin zen ekimena berriro ere errepikatzea erabaki zen, iaz izan zuen harrera ona ikusirik aurten berriro ere antolatzea erabagi zen. Herriko hainbat musikarirekin bat eginda, primerako emanaldia antolatu zen Mertzedeoko elizan. Eliza txiki geratu zela esan genezake, jende asko hurbildu baitzen soinu eta abesti paregabeak entzuteko asmotan. Emanaldi oso hunkigarria izan zen eta bukaeran Izarbideaneko erabiltzaileek, parte hartu zuten musikari guztieei zeramika-eskolan eurak egindako opariak ematera atera ziren.

ein jerie distirari!

AZAROAK 30 19:00
zapatua

Markina-Xemeingo
Mertzedeoko elizan

Fair Saturday
KONTZERTU SOLIDARIOA

**IZARBIDEAN
ELKARTEAREN
ALDE**

MARKINA-XEMEINGO BERTSO-ESKOLAK GIDATUTA:

MADDI TXURRUKA ETA
MIKEL ANSOLA
EMEKI KORALA
PABLO FDEZ. ARRIETA
XUA
RAKEL PUJANA
XEMEINGO GAZTE AHOTS
ABESBATZA
LOREA ZULAIKA
K-BAND

Sarrera:
borondatea.

www.izarbidean.org

Izarbidean
ein jerie distirari!

Ezazu! ezazu balaitz balaitz!





Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

Bestelako ekintzak:**-Abenduak 13 Lagun Ezkututa:**

Urtero bezela erabiltzaile, guraso eta boluntario guztiak Topagunean elkartu ziren. Erositako opariak aurretiaz zozketa bidez tokatutako pertsonari eman zizkieten. Oso urduri eoten dira egunhonetan, oparia nork emango zain. Egun hau oso berezia eta polita denez, kopau bat prestatu zen Topagunean, eta jaia bukatu ostean, herriko tabernetan ibili ziren taldean, freskagarriak hartu, dantzan egin, pintxoak jan, argazkiak atera... Erabiltzaileak oso-oso pozik egoten dira honelako ekintzetan, gainerako herritarrekin batera ibiltzen direlako kalean.



Bestelako ekintzak:**-Abenduak 18 Merendola solidarioa:**

laz izan genuen aukera ekitaldi honetan lehenengoz parte hartzeko eta aurten ere deitu digutenean zelan ezetz esan!. Arratsalde zoragarria izan zen. Bera Kruz ikastolako ikasleek antolatzen dute, herriko taldeekin harremanetan jarri, elkar ezagutu eta harreman berriak sortzeko helburuarekin. Ikasleek harrera ezin hobea prestatu zuten, ezer ez zen falta. Merendolan jan bakarrik ez, elkarrizketa ugari izan ziren eta ondoren musika, dantza eta festa. Esker bereziak eman behar dizkiogu honelako ekintzak antolatzen dituen jendeari; horrelako jende eta ekintza gehiago behar dira integrazioan aurrera egingo badugu.



www.izarbidean.org

Facebook-Izarbidean


Instagram-Izarbidean

2010eko uztailean jarri genuen martxan gure webgunea. Zenbait helburu ditu webgune honek, baina denen artean garrantzitsuena da erabiltzaile, haien familietako partaide eta, oro har, herrikoiei, ingurukoiei eta gutaz zerbait jakiteko gogoia duten guztiei informazioa helaraztea.

Bizi garen garaia kontuan hartuta, hausnarketa egin eta Interneten presentzia izatea ezinbestekoa dela ohartuta, gure berri emateko ahalegina egin behar genuela erabaki genuen.

Horregatik, webguneaz gain Facebook eta Instagram sare sozialetan ere profilak sortu ditugu; izan ere, zenbait erabiltzailek profil propioak dituzte sare horietan eta Izarbideanek ere izateko eskaera egin zuten.

Teknologia berrietan egin dugun saiakeraren inguruko balorazioa oso positiboa da., Erabiltzaileek bereziki estimatzen dute euren berri ematea, argazki eta testu horietako protagonista izatea gustuko baitute. Gainera, jendeari elkartearen berri emateko bide arina eta zuzena dela uste dugu.



www.izarbidean.org

Laguntzaileak:

Markina-Xemeingo Udala

Etxebarriako Udala

Ziortza Bolibarko Udala

Bizkaiko Foru Aldundia

Laboral Kutxa

La Caixa

Cikautxo

Eika

Kide

Fagor Arrasate

Lagun Aro

Hemen Be Bai
merkatari elkarte

